## EKIMENA

2019an alde biko kanpaina egin zuen **Aiaraldeko Euskalgintzaren Kontseilua**k: herritarrak mobilizatuz eta politikariak interpelatuz. *Ez we can´t* egoeratik ***Bai we can***-era pasaz. Bi dinamika jarri genituen abian: eragile politikoekin harreman bira eta herritarrei bideratutako sinadura bilketa. Hala, hiru eskaera zehatz egin genizkien alderdi eta plataforma independenteei: alkategai eta zinegotzi izateko aurkezten zituzten pertsonek gutxieneko euskara gaitasuna izatea, hauteskunde kanpainan euskara presente egotea eta euskararen normalizaziorako 11 neurri zehatz hartzeko proposamena.

Saraubeko mahaian aurkeztu genuen lanketaren emaitza: 25 alderdik konpromiso argiak hartu zituzten legegintzaldiko lau urteetan hizkuntzaren biziberritzean aurrera egiteko.

Dinamikaren helburua eskualdeko udal hauteskundeetara aurkezten ziren alderdi eta plataforma politikoei euskaldunon hizkuntz eskubideak errespetatu eta euskara Aiaraldean biziberritzeko konpromiso eraginkorrak eskatzea izan da.

Espainia zein EAE mailako legeetan oinarritu genituen eskakizunak, hizkuntza eskubideak benetan errespeta zitezen. Helburuetako batzuk legegintzaldi honetan gauzatzea espero genuen, eta gainontzekoak betetzeko baldintzak sortzea izan dugu xede. Elkarlana eta gogoetak alderdi eta instituzioekin partekatzea izan behar zuen bidea.

https://aiaraldekoeuskalgintza.eus/2021/07/02/bai-we-can-konpromisoak-betetzeko-garaia/




## PROPOSATUTAKO KONPROMISOAK

| | |
|---|---|
| 1 | Gutxienez, udal aurrekontuaren %2 euskararen normalizazio politiketara bideratzea. |
| 2 | Udalean hizkuntza-normalizaziora bideratzen den giza-baliabide kopurua (teknikariak, itzultzaileak...) Eusko jaurlaritzak zehazten duen irizpidearen araberakoa izatea. |
| 3 | Udalaren kanpo komunikazio guztia (oharrak, bandoak, prentsa-oharrak, kartelak, esku-orriak) %100ean euskaraz irakurtzeko aukera ahalbidetzea, ohiko zabalpen kanal publikoen bidez. |
| 4 | Udal aldizkariak eta argitalpenak %100ean euskaraz irakurtzeko aukera ahalbidetzea, ohiko zabalpen kanal publikoen bidez. |
| 5 | Udalarekin harreman guztiak euskaraz soilik izan nahi dituzten herritar euskaldunen errolda osatzea eta hori bermatzeko neurriak hartzea. |
| 2 | Udalaren jendaurreko arreta zerbitzu guztietan euskarazko arreta %100ean bermatzea. |
| 3 | Diru-publikoa jasotzen duten entitate eta elkarteei, euren kanpo komunikazioan hizkuntz-irizpideak betetzeko derrigortasuna ezartzea eta jarraipen baliabideak bermatzea, bi hizkuntza ofizialak erabili ditzaten maila berdinean. |
| 4 | Udalaren kanpo kontratazioetan (lizitazioak, azpikontratazioak...), Hizkuntz irizpideak ezartzea eta jarraipen baliabideak bermatzea. |
| 5 | Udalean sortuko diren lanpostu berrietan zein ordezkapenetan dagokion hizkuntz-eskakizuna bermatzea eta derrigortasun datak ezarri eta betearaztea. |
| 6 | Udalak herritarrekin dituen bilera eta batzarretan hala nahi duten herritarrei soilik euskaraz aritzeko aukera bermatzea. |
| 7 | Udalak euskara ordenantza propioa osatzea edota eguneratzea |

## SINATZAILEAK

- **Laudio:** EAJ, EH Bildu, OMNIA, Elkarrekin-Podemos
- **Amurrio:** EAJ, EH Bildu, Orain Amurrio, Guk Bai
- **Urduña:** EH Bildu, EAJ, PSE-EE
- **Orozko:** ADIE, EAJ, EH BIldu
- **Aiara:** EAJ, EH Bildu, Aiara Batuz
- **Arrankudiaga-Zollo:** EH Bildu, EAJ
- **Artziniega:** EH Bildu, EAJ
- **Okondo:** EAJ, EH Bildu, Okondo Aurrera
- **Arakaldo:** EH Bildu

## JARRAIPEN MAHAIAK

Konpromisoen betetze maila neurtzeko eta jarraipena eman nahiz proposamenak partekatzeko *Bai We Can-en jarraipen mahaiak* eratu ziren udalerri bakoitzean. Osaerari dagokionez Udaleko euskara teknikaria, euskara zinegotzia edo eta alkatea, alderdi sinatzaileetako ordezkari bana eta Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluko bi ordezkarik parte hartu zuten udalerri bakoitzean. Osaerak berak elkarlanerako aukera, konpromisoen jarraipena egin eta modu eraginkorrean jardutea zuen helburu, euskararen gaia alderdikerietatik babesteko bokazioarekin gainera. Xedea, euskararen normalkuntzan udal mailan aurrera pausuak ematea izan da.

2021ko urtarrila eta 2023 maiatza bitartean herri bakoitzean 4 bilera egitea jarri genuen helburutzat. Hona hemen izandako hitzorduak:

| udalerria | 1 | 2 | 3 | 4 |
|---|---|---|---|---|
| URDUÑA | 2021/04/27 | 2021/10/14 | 2022/11/02 | 2023/05/04 |
| ARRANKUDIAGA-ZOLLO | 2021/05/20 | 2021/10/22 | 2022/10/28 | 2023/03/16 |
| AIARA | 2021/05/25 | 2023/05/03 | | |
| AMURRIO | 2021/06/29 | 2021/10/19 eta 12/22 | 2022/08/24 eta 10/13-21 | |
| ARTZINIEGA | 2021/05/26 | 2023/03/15 | | |
| OKONDO | 2021/05/27 | 2022/10/20 | | |
| ARAKALDO | 2021/06/24 | 2022/03/24 | 2022/06/30 | |
| OROZKO | 2021/11/11 | 2022/05/18 | 2022/11/03 | 2023/03/29 |
| LAUDIO | 2023/03/21 | | | |

## ONDORIOAK HERRIZ-HERRI

Balorazioa egiterako orduan sinatutako konpromisoen betetze maila izan da gakoa. Baina txostenean jaso dugu baita, dinamika berarekiko konpromisoa eta parte hartzea. Hau da, biltzeko prestutasuna eta mahaiaren osaera bera, planteatutako terminoetan gauzatu izana edo ez.

Konpromisoei dagokionez, gobernatzen duen alderdiak hartutakoak kontuan hartu ditugu.

## Aiara

Bilera kopuruari dagokionez ez dira helburuak bete, 2021 eta 2023 artean soilik bi bilera egin dira. Berauetan alkatea, euskara teknikaria eta gainerako alderdietako ordezkari banak parte hartu dute, planteatu genuen formatua errespetatuz. Bilera kopuru eskasak proposamenak trukatzea eta bestelako lanketa edo eta aurrerapausuak egitea galarazi du.

Sinatu ziren 11 konpromisoetatik 7 bete dira.

| | |
|---|---|
| 1 | Gutxienez, udal aurrekontuaren %2 euskararen normalizazio politiketara bideratzea.<br>**Konpromiso hau sinatu zen eta bete egin da.** |
| 2 | Udalean hizkuntza-normalizaziora bideratzen den giza-baliabide kopurua (teknikariak, itzultzaileak...) Eusko jaurlaritzak zehazten duen irizpidearen araberakoa izatea.<br>**Konpromiso hau sinatu zen eta bete egin da.** |
| 3 | Udalaren kanpo komunikazio guztia (oharrak, bandoak, prentsa-oharrak, kartelak, esku-orriak) %100ean euskaraz irakurtzeko aukera ahalbidetzea, ohiko zabalpen kanal publikoen bidez.<br>**Konpromiso hau sinatu zen eta bete egin da.** |
| 4 | Udal aldizkariak eta argitalpenak %100ean euskaraz irakurtzeko aukera ahalbidetzea, ohiko zabalpen kanal publikoen bidez.<br>**Konpromiso hau ez zuten sinatu baina ez da bete.** |
| 5 | Udalarekin harreman guztiak euskaraz soilik izan nahi dituzten herritar euskaldunen errolda osatzea eta hori bermatzeko neurriak hartzea.<br>**Konpromiso hau sinatu zen eta ez da bete.** |
| 6 | Udalaren jendaurreko arreta zerbitzu guztietan euskarazko arreta %100ean bermatzea.<br>**Konpromiso hau sinatu zen eta ez da bete.**<br>*Hirigintza zerbitzuagatik ez da betetzen* |
| 7 | Diru-publikoa jasotzen duten entitate eta elkarteei, euren kanpo komunikazioan hizkuntz-irizpideak betetzeko derrigortasuna ezartzea eta jarraipen baliabideak bermatzea, bi hizkuntza ofizialak erabili ditzaten maila berdinean.<br>**Konpromiso hau sinatu zen eta bete egin da.** |
| 8 | Udalaren kanpo kontratazioetan (lizitazioak, azpikontratazioak...), Hizkuntz irizpideak ezartzea eta jarraipen baliabideak bermatzea.<br>**Konpromiso hau sinatu zen eta bete egin da.** |
| 9 | Udalean sortuko diren lanpostu berrietan zein ordezkapenetan dagokion hizkuntz-eskakizuna bermatzea eta derrigortasun datak ezarri eta betearaztea.<br>**Konpromiso hau sinatu zen eta bete egin da.** |
| 10 | Udalak herritarrekin dituen bilera eta batzarretan hala nahi duten herritarrei soilik euskaraz aritzeko aukera bermatzea.<br>**Konpromiso hau sinatu zen eta bete egin da.** |
| 11 | Udalak euskara ordenantza propioa osatzea edota eguneratzea<br>**Konpromiso hau sinatu zen eta ez da bete.** |




## Amurrio

Bilerak abiatzea zaila gertatu zen, dinamikarekiko konpromisoa zalantzan jarri baitzen Udal Gobernuaren partetik. Alde horretatik gainera, euskara zinegotziak ez du onartu mahaiaren osaera bere osotasunean. Hots, bi mahai egin behar izan dira paraleloan: batean euskara teknikaria, euskara zinegotzia eta AIEKEko ordezkariak eta bestean, gainerako alderdi sinatzaileen ordezkariak eta AIEKEkoak. Planteamendu honek elkarlana sustatzea ezinezkoa egin du, alderdi ezberdinen arteko iritzi trukaketa ukatu du eta oro har dinamika bera antzua bihurtu du. Ez da aurrera pausurik eman bileratik bilerara eta ez da elkarlanerako prestutasunik izan. Etengabe jarri da zalantzan dinamika bera. Orotara hiru bilera erronda egin dira, helburuak erdietsi gabe. Hala ber, ez da nahikoa informazio eman zenbait konpromiso bete diren edo ez neurtu ahal izateko. Hartutako 6 konpromisoetatik, 3 bete dira.

| | |
|---|---|
| 1 | Gutxienez, udal aurrekontuaren %2 euskararen normalizazio politiketara bideratzea.<br>**Konpromiso hau sinatu zen eta bete egin da.**<br>*Aurrekontuaren %2,41* |
| 2 | Udalean hizkuntza-normalizaziora bideratzen den giza-baliabide kopurua (teknikariak, itzultzaileak...) Eusko jaurlaritzak zehazten duen irizpidearen araberakoa izatea.<br>**Konpromiso hau ez zen sinatu.**<br>*Eusko Jaurlaritzaren gomendatutako giza baliabide kopuruetatik oso urrun dago, argi dago egungo baliabideak ez nahikoak direla* |
| 3 | Udalaren kanpo komunikazio guztia (oharrak, bandoak, prentsa-oharrak, kartelak, esku-orriak) %100ean euskaraz irakurtzeko aukera ahalbidetzea, ohiko zabalpen kanal publikoen bidez.<br>**Konpromiso hau sinatu zen eta bete egin da.** |
| 4 | Udal aldizkariak eta argitalpenak %100ean euskaraz irakurtzeko aukera ahalbidetzea, ohiko zabalpen kanal publikoen bidez.<br>**Konpromiso hau ez zen sinatu.** |
| 5 | Udalarekin harreman guztiak euskaraz soilik izan nahi dituzten herritar euskaldunen errolda osatzea eta hori bermatzeko neurriak hartzea.<br>**Konpromiso hau sinatu zen eta ez da bete.** |
| 6 | Udalaren jendaurreko arreta zerbitzu guztietan euskarazko arreta %100ean bermatzea.<br>**Konpromiso hau sinatu zen** |
| 7 | Diru-publikoa jasotzen duten entitate eta elkarteei, euren kanpo komunikazioan hizkuntz-irizpideak betetzeko derrigortasuna ezartzea eta jarraipen baliabideak bermatzea, bi hizkuntza ofizialak erabili ditzaten maila berdinean.<br>**Konpromiso hau ez zen sinatu.** |
| 8 | Udalaren kanpo kontratazioetan (lizitazioak, azpikontratazioak...), Hizkuntz irizpideak ezartzea eta jarraipen baliabideak bermatzea.<br>**Konpromiso hau sinatu zen, baina ezin baloratu informazio faltagatik** |
| 9 | Udalean sortuko diren lanpostu berrietan zein ordezkapenetan dagokion hizkuntz-eskakizuna bermatzea eta derrigortasun datak ezarri eta betearaztea.<br>**Konpromiso hau sinatu zen, baina ezin baloratu informazio faltagatik** |




| | |
|---|---|
| 10 | Udalak herritarrekin dituen bilera eta batzarretan hala nahi duten herritarrei soilik euskaraz aritzeko aukera bermatzea.<br>**Konpromiso hau sinatu zen eta bete egin da.** |
| 11 | Udalak euskara ordenantza propioa osatzea edota eguneratzea<br>**Konpromiso hau ez zen sinatu.** |

## Arakaldo

Herriaren nolakotasunagatik bilerak alkatearen eta AIEKEko ordezkariaren artekoak izan dira. Dinamika bera eta zenbait konpromiso ez dira herriaren ezaugarri eta tamainaren neurrikoak diseinatu. Hala ere, jarrera pro-aktiboa eta informazio eta gardentasunez jardun dela deritzogu, egindako hiru bileretan. 7 konpromiso hartu ziren eta 5 bete dira.

| | |
|---|---|
| 1 | Gutxienez, udal aurrekontuaren %2 euskararen normalizazio politiketara bideratzea.<br>**Konpromiso hau sinatu zen eta ez da bete.**<br>*Egun obra handi batek herriaren aurrekontua erabat desitxuratzen duelako* |
| 2 | Udalean hizkuntza-normalizaziora bideratzen den giza-baliabide kopurua (teknikariak, itzultzaileak...) Eusko jaurlaritzak zehazten duen irizpidearen araberakoa izatea.<br>**Konpromiso hau ez zen sinatu.** |
| 3 | Udalaren kanpo komunikazio guztia (oharrak, bandoak, prentsa-oharrak, kartelak, esku-orriak) %100ean euskaraz irakurtzeko aukera ahalbidetzea, ohiko zabalpen kanal publikoen bidez.<br>**Konpromiso hau sinatu zen eta bete egin da.** |
| 4 | Udal aldizkariak eta argitalpenak %100ean euskaraz irakurtzeko aukera ahalbidetzea, ohiko zabalpen kanal publikoen bidez.<br>**Konpromiso hau sinatu zen eta bete egin da.** |
| 5 | Udalarekin harreman guztiak euskaraz soilik izan nahi dituzten herritar euskaldunen errolda osatzea eta hori bermatzeko neurriak hartzea.<br>**Konpromiso hau ez zen sinatu.** |
| 6 | Udalaren jendaurreko arreta zerbitzu guztietan euskarazko arreta %100ean bermatzea.<br>**Konpromiso hau ez zen sinatu.**<br>*Egun %95ean bai* |
| 7 | Diru-publikoa jasotzen duten entitate eta elkarteei, euren kanpo komunikazioan hizkuntz-irizpideak betetzeko derrigortasuna ezartzea eta jarraipen baliabideak bermatzea, bi hizkuntza ofizialak erabili ditzaten maila berdinean.<br>**Konpromiso hau ez zen sinatu.**<br>*Egun ez da elkarterik eta ez da kartelik egiten. Komunikazioak whats-app bidez egiten ekintzen kasuan.* |
| 8 | Udalaren kanpo kontratazioetan (lizitazioak, azpikontratazioak...), Hizkuntz irizpideak ezartzea eta jarraipen baliabideak bermatzea.<br>**Konpromiso hau sinatu zen eta bete egin da.** |
| 9 | Udalean sortuko diren lanpostu berrietan zein ordezkapenetan dagokion hizkuntz-eskakizuna bermatzea eta derrigortasun datak ezarri eta betearaztea. |

| | |
|---|---|
| | **Konpromiso hau sinatu zen eta bete egin da.*** *Lan-poltsaren salbuespenarekin* |
| 10 | Udalak herritarrekin dituen bilera eta batzarretan hala nahi duten herritarrei soilik euskaraz aritzeko aukera bermatzea. **Konpromiso hau sinatu zen eta bete egin da.** |
| 11 | Udalak euskara ordenantza propioa osatzea edota eguneratzea **Konpromiso hau sinatu zen eta ez da bete.** |

## Arrankudiaga-Zollo

4 bilera egin dira 2021etik, beraz bilera kopuruari begira helburuak bete dira. Bilerak planteatutako terminoetan egin dira, alde guztien parte hartzearekin. Jarrera pro-aktiboa azaldu da eta gardentasunez landu dira gaiak. Udala UEMAn sartzeko pausua eman du legegintzaldian. Hartutako 11 konpromisoetatik 9 bete dira.

| | |
|---|---|
| 1 | Gutxienez, udal aurrekontuaren %2 euskararen normalizazio politiketara bideratzea. **Konpromiso hau sinatu zen eta bete egin da.** *Aurrekontuaren %3,55* |
| 2 | Udalean hizkuntza-normalizaziora bideratzen den giza-baliabide kopurua (teknikariak, itzultzaileak...) Eusko jaurlaritzak zehazten duen irizpidearen araberakoa izatea. **Konpromiso hau sinatu zen eta bete egin da.** |
| 3 | Udalaren kanpo komunikazio guztia (oharrak, bandoak, prentsa-oharrak, kartelak, esku-orriak) %100ean euskaraz irakurtzeko aukera ahalbidetzea, ohiko zabalpen kanal publikoen bidez. **Konpromiso hau sinatu zen eta bete egin da.** |
| 4 | Udal aldizkariak eta argitalpenak %100ean euskaraz irakurtzeko aukera ahalbidetzea, ohiko zabalpen kanal publikoen bidez. **Konpromiso hau sinatu zen eta bete egin da.** |
| 5 | Udalarekin harreman guztiak euskaraz soilik izan nahi dituzten herritar euskaldunen errolda osatzea eta hori bermatzeko neurriak hartzea. **Konpromiso hau sinatu zen eta ez da bete.** |
| 6 | Udalaren jendaurreko arreta zerbitzu guztietan euskarazko arreta %100ean bermatzea. **Konpromiso hau sinatu zen eta bete egin da.** |
| 7 | Diru-publikoa jasotzen duten entitate eta elkarteei, euren kanpo komunikazioan hizkuntz-irizpideak betetzeko derrigortasuna ezartzea eta jarraipen baliabideak bermatzea, bi hizkuntza ofizialak erabili ditzaten maila berdinean. **Konpromiso hau sinatu zen eta bete egin da.** |
| 8 | Udalaren kanpo kontratazioetan (lizitazioak, azpikontratazioak...), Hizkuntz irizpideak ezartzea eta jarraipen baliabideak bermatzea. **Konpromiso hau sinatu zen eta bete egin da.** |

| | |
|---|---|
| 9 | Udalean sortuko diren lanpostu berrietan zein ordezkapenetan dagokion hizkuntz-eskakizuna bermatzea eta derrigortasun datak ezarri eta betearaztea.<br>**Konpromiso hau sinatu zen eta bete egin da.** |
| 10 | Udalak herritarrekin dituen bilera eta batzarretan hala nahi duten herritarrei soilik euskaraz aritzeko aukera bermatzea.<br>**Konpromiso hau sinatu zen eta bete egin da.** |
| 11 | Udalak euskara ordenantza propioa osatzea edota eguneratzea<br>**Konpromiso hau sinatu zen eta ez da bete.** |

## Artziniega

Ezarritako epean 2 bilera egin dira soilik, helburua beraz ez da bete. Bilerak eskatu diren arren ez dira egin eta Udal gobernuaren aldetik lan karga aipatu da arrazoi gisa eta ezin iritsita ibili direla.

Bost konpromiso sinatu zituzten, horietatik 3 bete dituzte. Horrez gain, sinatu ez zituzten beste hiru bete dituzte. Aparteko lau konpromiso hartu zituzten: kanpaina elebiduna egitea (beteta), euskara udal taldearen lan hizkuntza izatea (beteta), alkateak B2 maila aterako zuela (ez da bete), lan postu berrietan perfil egokia bermatzea (beteta).

| | |
|---|---|
| 1 | Gutxienez, udal aurrekontuaren %2 euskararen normalizazio politiketara bideratzea.<br>**Konpromiso hau sinatu zen eta ez da bete.** |
| 2 | Udalean hizkuntza-normalizaziora bideratzen den giza-baliabide kopurua (teknikariak, itzultzaileak...) Eusko jaurlaritzak zehazten duen irizpidearen araberakoa izatea.<br>**Konpromiso hau sinatu zen eta ez da bete.** |
| 3 | Udalaren kanpo komunikazio guztia (oharrak, bandoak, prentsa-oharrak, kartelak, esku-orriak) %100ean euskaraz irakurtzeko aukera ahalbidetzea, ohiko zabalpen kanal publikoen bidez.<br>**Konpromiso hau ez zen sinatu baina bete egin da.** |
| 4 | Udal aldizkariak eta argitalpenak %100ean euskaraz irakurtzeko aukera ahalbidetzea, ohiko zabalpen kanal publikoen bidez.<br>**Ez dute udal aldizkaririk** |
| 5 | Udalarekin harreman guztiak euskaraz soilik izan nahi dituzten herritar euskaldunen errolda osatzea eta hori bermatzeko neurriak hartzea.<br>**Konpromiso hau sinatu zen eta ez da bete.** |
| 6 | Udalaren jendaurreko arreta zerbitzu guztietan euskarazko arreta %100ean bermatzea.<br>**Konpromiso hau ez zen sinatu** |
| 7 | Diru-publikoa jasotzen duten entitate eta elkarteei, euren kanpo komunikazioan hizkuntz-irizpideak betetzeko derrigortasuna ezartzea eta jarraipen baliabideak bermatzea, bi hizkuntza ofizialak erabili ditzaten maila berdinean. |




| | |
|---|---|
| | **Konpromiso hau sinatu zen eta bete egin da.** |
| 8 | Udalaren kanpo kontratazioetan (lizitazioak, azpikontratazioak...), Hizkuntz irizpideak ezartzea eta jarraipen baliabideak bermatzea.<br>**Konpromiso hau ez zen sinatu baina bete egin da.** |
| 9 | Udalean sortuko diren lanpostu berrietan zein ordezkapenetan dagokion hizkuntz-eskakizuna bermatzea eta derrigortasun datak ezarri eta betearaztea.<br>**Konpromiso hau sinatu zen eta bete egin da.** |
| 10 | Udalak herritarrekin dituen bilera eta batzarretan hala nahi duten herritarrei soilik euskaraz aritzeko aukera bermatzea.<br>**Konpromiso hau ez zen  sinatu baina bete egin da.** |
| 11 | Udalak euskara ordenantza propioa osatzea edota eguneratzea<br>**Konpromiso hau sinatu zen eta ez da bete.** |

## Laudio

Ezarritako epean bilera bakarra egin da martxoan, ia bi urtez bilera eskatzen egon ostean eta alkatearengandik erantzunik jaso gabe epe horretan. Hala ere, bilera planteatutako terminoetan egin zen, alde guztien parte hartzearekin (talde sinatzaileetako batek ezin izan zuen parte hartu agenda kontuengatik).

Bilera bakarra egin izanak elkarlanerako bidea ez baliatzea ekarri du, informazio eta iritzi trukaketa izatea edo eta proposamen berriak lantzea. Egindako bilera bakarrean alkateak zalantzan jarri zuen jarraipen mahaiarekiko konpromisorik hartua zuenik. Hamaika konpromisoak sinatu ziren eta horietatik 9 bete dira.

| | |
|---|---|
| 1 | Gutxienez, udal aurrekontuaren %2 euskararen normalizazio politiketara bideratzea.<br>**Konpromiso hau sinatu zen eta bete egin da.** |
| 2 | Udalean hizkuntza-normalizaziora  bideratzen den giza-baliabide kopurua (teknikariak, itzultzaileak...) Eusko jaurlaritzak zehazten duen irizpidearen araberakoa izatea.<br>**Konpromiso hau sinatu zen eta bete egin da.** |
| 3 | Udalaren kanpo komunikazio guztia (oharrak, bandoak, prentsa-oharrak, kartelak, esku-orriak) %100ean euskaraz irakurtzeko aukera ahalbidetzea, ohiko zabalpen kanal publikoen bidez.<br>**Konpromiso hau sinatu zen eta bete egin da.** |
| 4 | Udal aldizkariak eta argitalpenak %100ean euskaraz irakurtzeko aukera ahalbidetzea, ohiko zabalpen kanal publikoen bidez.<br>**Konpromiso hau sinatu zen eta bete egin da.** |
| 5 | Udalarekin harreman guztiak euskaraz soilik izan nahi dituzten herritar euskaldunen errolda osatzea eta hori bermatzeko neurriak hartzea.<br>**Konpromiso hau sinatu zen eta ez da bete.** |
| 6 | Udalaren jendaurreko arreta zerbitzu guztietan euskarazko arreta %100ean bermatzea. |

| | |
|---|---|
| | **Konpromiso hau sinatu zen eta bete egin da.** |
| 7 | Diru-publikoa jasotzen duten entitate eta elkarteei, euren kanpo komunikazioan hizkuntz-irizpideak betetzeko derrigortasuna ezartzea eta jarraipen baliabideak bermatzea, bi hizkuntza ofizialak erabili ditzaten maila berdinean.<br>**Konpromiso hau sinatu zen eta bete egin da.** |
| 8 | Udalaren kanpo kontratazioetan (lizitazioak, azpikontratazioak...), Hizkuntz irizpideak ezartzea eta jarraipen baliabideak bermatzea.<br>**Konpromiso hau sinatu zen eta bete egin da.** |
| 9 | Udalean sortuko diren lanpostu berrietan zein ordezkapenetan dagokion hizkuntz-eskakizuna bermatzea eta derrigortasun datak ezarri eta betearaztea.<br>**Konpromiso hau sinatu zen eta bete egin da.** |
| 10 | Udalak herritarrekin dituen bilera eta batzarretan hala nahi duten herritarrei soilik euskaraz aritzeko aukera bermatzea.<br>**Konpromiso hau sinatu zen eta bete egin da.** |
| 11 | Udalak euskara ordenantza propioa osatzea edota eguneratzea<br>**Konpromiso hau sinatu zen eta ez da bete.** |

## Okondo

Okondon egoera berezia ematen da, alkatea alderdi batekoa baita eta euskara zinegotzia bestekoa, alkatetza duen alderdiak 4 konpromiso sinatu zituen eta besteak 11. Koalizio moduan kontuan hartu ditugun arren, bi alderdiok oso iritzi ezberdinak agertu dituzte euskararen alorrean. Orotara 2 bilera egin dira eta osaerari dagokionez planteatutako terminoetan egin dira. Hamaika konpromisoetatik 5 bete dira.

Bestelako konpromisoei dagokionez, alkateak euskara ikasiko zuela adierazi zuen kanpainan, baina konpromisoa ez da bete.

| | |
|---|---|
| 1 | Gutxienez, udal aurrekontuaren %2 euskararen normalizazio politiketara bideratzea.<br>**Konpromiso hau ez da bete.**<br>*Aurrekontuaren %1,17a* |
| 2 | Udalean hizkuntza-normalizaziora bideratzen den giza-baliabide kopurua (teknikariak, itzultzaileak...) Eusko jaurlaritzak zehazten duen irizpidearen araberakoa izatea.<br>**Konpromiso hau bete egin da.**<br>*Hala ere alde guztiak ados daude, baliabide gehiagoren beharra dago* |
| 3 | Udalaren kanpo komunikazio guztia (oharrak, bandoak, prentsa-oharrak, kartelak, esku-orriak) %100ean euskaraz irakurtzeko aukera ahalbidetzea, ohiko zabalpen kanal publikoen bidez.<br>**Konpromiso hau sinatu zen eta bete egin da.** |
| 4 | Udal aldizkariak eta argitalpenak %100ean euskaraz irakurtzeko aukera ahalbidetzea, ohiko zabalpen kanal publikoen bidez.<br>**Konpromiso hau sinatu zen eta ez da bete.** |

| | |
|---|---|
| 5 | Udalarekin harreman guztiak euskaraz soilik izan nahi dituzten herritar euskaldunen errolda osatzea eta hori bermatzeko neurriak hartzea.<br>**Konpromiso hau ez da bete.** |
| 6 | Udalaren jendaurreko arreta zerbitzu guztietan euskarazko arreta %100ean bermatzea.<br>**Konpromiso hau sinatu zen eta ez da bete.** |
| 7 | Diru-publikoa jasotzen duten entitate eta elkarteei, euren kanpo komunikazioan hizkuntz-irizpideak betetzeko derrigortasuna ezartzea eta jarraipen baliabideak bermatzea, bi hizkuntza ofizialak erabili ditzaten maila berdinean.<br>**Konpromiso hau bete egin da.** |
| 8 | Udalaren kanpo kontratazioetan (lizitazioak, azpikontratazioak...), Hizkuntz irizpideak ezartzea eta jarraipen baliabideak bermatzea.<br>**Konpromiso hau ez da bete.**<br>*Aurrerapausuak eman diren arren ezintasunak ere adierazten dira* |
| 9 | Udalean sortuko diren lanpostu berrietan zein ordezkapenetan dagokion hizkuntz-eskakizuna bermatzea eta derrigortasun datak ezarri eta betearaztea.<br>**Konpromiso hau sinatu zen eta bete egin da.** |
| 10 | Udalak herritarrekin dituen bilera eta batzarretan hala nahi duten herritarrei soilik euskaraz aritzeko aukera bermatzea.<br>**Konpromiso hau ez da bete.** |
| 11 | Udalak euskara ordenantza propioa osatzea edota eguneratzea<br>**Konpromiso hau sinatu zen eta ez da bete.** |

## Orozko

4 bilera egin dira planteatutako terminoetan. Talde sinatzaile guztiek parte hartu dute eta Udal gobernuaren partetik euskara zinegotziaz gain alkatea ere bertan izan da. 10 konpromiso sinatu ziren eta horietatik 8 bete dituzte. Jarrera pro-aktiboa izan da, gardentasunez landu dira gaiak, bileratik bilerara aurrera-pausuak izan dira eta egindako proposamenak kontuan hartu dira. Orozkoko Udala UEMAn dago.

| | |
|---|---|
| 1 | Gutxienez, udal aurrekontuaren %2 euskararen normalizazio politiketara bideratzea.<br>**Konpromiso hau sinatu zen eta bete egin da.** |
| 2 | Udalean hizkuntza-normalizaziora bideratzen den giza-baliabide kopurua (teknikariak, itzultzaileak...) Eusko jaurlaritzak zehazten duen irizpidearen araberakoa izatea.<br>**Konpromiso hau sinatu zen eta bete egin da.** |
| 3 | Udalaren kanpo komunikazio guztia (oharrak, bandoak, prentsa-oharrak, kartelak, esku-orriak) %100ean euskaraz irakurtzeko aukera ahalbidetzea, ohiko zabalpen kanal publikoen bidez.<br>**Konpromiso hau sinatu zen eta bete egin da.** |
| 4 | Udal aldizkariak eta argitalpenak %100ean euskaraz irakurtzeko aukera ahalbidetzea, ohiko zabalpen kanal publikoen bidez.<br>**Konpromiso hau ez zuten sinatu baina bete egin da.** |

| | |
|---|---|
| 5 | Udalarekin harreman guztiak euskaraz soilik izan nahi dituzten herritar euskaldunen errolda osatzea eta hori bermatzeko neurriak hartzea.<br>**Konpromiso hau sinatu zen eta ez da bete.** |
| 6 | Udalaren jendaurreko arreta zerbitzu guztietan euskarazko arreta %100ean bermatzea.<br>**Konpromiso hau sinatu zen eta ez da bete.** |
| 7 | Diru-publikoa jasotzen duten entitate eta elkarteei, euren kanpo komunikazioan hizkuntz-irizpideak betetzeko derrigortasuna ezartzea eta jarraipen baliabideak bermatzea, bi hizkuntza ofizialak erabili ditzaten maila berdinean.<br>**Konpromiso hau sinatu zen eta bete egin da.** |
| 8 | Udalaren kanpo kontratazioetan (lizitazioak, azpikontratazioak...), Hizkuntz irizpideak ezartzea eta jarraipen baliabideak bermatzea.<br>**Konpromiso hau sinatu zen eta bete egin da.** |
| 9 | Udalean sortuko diren lanpostu berrietan zein ordezkapenetan dagokion hizkuntz-eskakizuna bermatzea eta derrigortasun datak ezarri eta betearaztea.<br>**Konpromiso hau sinatu zen eta bete egin da.** |
| 10 | Udalak herritarrekin dituen bilera eta batzarretan hala nahi duten herritarrei soilik euskaraz aritzeko aukera bermatzea.<br>**Konpromiso hau sinatu zen eta bete egin da.** |
| 11 | Udalak euskara ordenantza propioa osatzea edota eguneratzea<br>**Konpromiso hau sinatu zen eta ez da bete.** |

## Urduña

Planteatutako terminoetan 4 bilera egin dira, helburua alde horretatik betez. Zenbait aurrera-pausu ere eman dira, hartutako konpromisoetatik harago. 6 konpromiso hartu ziren eta 7 bete dira.

| | |
|---|---|
| 1 | Gutxienez, udal aurrekontuaren %2 euskararen normalizazio politiketara bideratzea.<br>**Konpromiso hau sinatu zen eta bete da.**<br>*Aurrekontuaren %2,8* |
| 2 | Udalean hizkuntza-normalizaziora bideratzen den giza-baliabide kopurua (teknikariak, itzultzaileak...) Eusko jaurlaritzak zehazten duen irizpidearen araberakoa izatea.<br>**Konpromiso hau ez zen sinatu baina betetzen da**<br>*Hala ere baliabideak ez-nahikoak direla irizten da* |
| 3 | Udalaren kanpo komunikazio guztia (oharrak, bandoak, prentsa-oharrak, kartelak, esku-orriak) %100ean euskaraz irakurtzeko aukera ahalbidetzea, ohiko zabalpen kanal publikoen bidez.<br>**Konpromiso hau sinatu zen baina ez da betetzen** |
| 4 | Udal aldizkariak eta argitalpenak %100ean euskaraz irakurtzeko aukera ahalbidetzea, ohiko zabalpen kanal publikoen bidez.<br>**Konpromiso hau ez zen sinatu** |

| | |
|---|---|
| 5 | Udalarekin harreman guztiak euskaraz soilik izan nahi dituzten herritar euskaldunen errolda osatzea eta hori bermatzeko neurriak hartzea.<br>**Konpromiso hau ez zen sinatu** |
| 6 | Udalaren jendaurreko arreta zerbitzu guztietan euskarazko arreta %100ean bermatzea.<br>**Konpromiso hau sinatu zen eta bete da.** |
| 7 | Diru-publikoa jasotzen duten entitate eta elkarteei, euren kanpo komunikazioan hizkuntz-irizpideak betetzeko derrigortasuna ezartzea eta jarraipen baliabideak bermatzea, bi hizkuntza ofizialak erabili ditzaten maila berdinean.<br>**Konpromiso hau sinatu zen eta bete egin da.** |
| 8 | Udalaren kanpo kontratazioetan (lizitazioak, azpikontratazioak...), Hizkuntz irizpideak ezartzea eta jarraipen baliabideak bermatzea.<br>**Konpromiso hau ez zen  sinatu baina bete egin da.** |
| 9 | Udalean sortuko diren lanpostu berrietan zein ordezkapenetan dagokion hizkuntz-eskakizuna bermatzea eta derrigortasun datak ezarri eta betearaztea.<br>**Konpromiso hau sinatu zen eta bete egin da.** |
| 10 | Udalak herritarrekin dituen bilera eta batzarretan hala nahi duten herritarrei soilik euskaraz aritzeko aukera bermatzea.<br>**Konpromiso hau ez zen sinatu.** |
| 11 | Udalak euskara ordenantza propioa osatzea edota eguneratzea<br>**Konpromiso hau sinatu zen eta ez da bete.** |

## ARGAZKI OROKORRA

| konpromisoak | 1. | 2. | 3. | 4. | 5. | 6. | 7. | 8. | 9. | 10. | 11. | bilerak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Aiara | bete da | bete da | bete da | ez da bete | ez da bete | ez da bete | bete da | bete da | bete da | bete da | ez da bete | 2 |
| Amurrio | bete da | ez zen sinatu | bete da | ez zen sinatu | ez da bete | bete da | ez zen sinatu | ezin baloratu | ezin baloratu | ez zen sinatu | ez zen sinatu | 3 |
| Arakaldo | ez da bete | ez zen sinatu | bete da | bete da | ez zen sinatu | ez zen sinatu | ez zen sinatu | bete da | bete da | bete da | ez da bete | 3 |
| Arrankudiaga-Zollo | bete da | bete da | bete da | bete da | ez da bete | bete da | bete da | bete da | bete da | bete da | ez da bete | 4 |
| Artziniega | ez da bete | ez da bete | bete da | ezin baloratu | ez da bete | ez zen sinatu | bete da | bete da | bete da | bete da | bete da | 3 |
| Laudio | bete da | bete da | bete da | bete da | ez da bete | bete da | bete da | bete da | bete da | bete da | ez da bete | 1 |
| Okondo | ez da bete | bete da | bete da | ez da bete | ez da bete | bete da | bete da | ez da bete | bete da | ez da bete | ez da bete | 2 |
| Orozko | bete da | bete da | bete da | bete da | ez da bete | ez da bete | bete da | bete da | bete da | bete da | ez da bete | 4 |
| Urduña | bete da | bete da | bete da | ez zen sinatu | ez zen sinatu | bete da | bete da | bete da | bete da | ez zen sinatu | ez da bete | 4 |

| | | | |
|---|---|---|---|
| bete da | ez da bete | ez zen sinatu | ezin baloratu |

Duela lau urte abiatutako dinamikak garapen eta emaitza oso ezberdinak izan ditu herritik herrira, dinamika berarekiko udal gobernuek azaldutako atxikimenduari lotuta.

Ekimenak mahai gainean jarri ditu euskara, udal jarduera, hizkuntza politika eta hizkuntza eskubideak, fokua bertan jarri eta jarraipena egiteko. Zenbait kasutan ekitera ere bultzatu ditu udalak, kontuan hartzen ez ziren alorrak kontuan hartzera, aztertzera... Proposamenak trukatu dira eta aurrera-pausuak ere izan dira hartutako konpromisoetatik harago. Udalerri bateko esperientzia ona beste udalerriei jakinarazteko ere balio izan du Jarraipen Mahaiaren jardunak, baita alderdietatik harago elkarlana sustatzeko.

Planteatutako zenbait konpromiso egokitzeko eta zehazteko beharra ikusi dugu. Hizkuntza eskubideak era esplizituago batean jaso beharra baita. Dinamika berarekiko konpromisoa indartu behar da, zalantzarik gabe. Bide honetan sakontzen eta aurrera-pausuak ematen jarraitu behar dugula argi dugu.

Horregatik, 2023-2027 Legegintzaldirako, azken lau urteotako esperientzian oinarrituta, konpromiso sorta berri bat aurkeztuko diegu hautagaiei. Sinetsita baikaude arnas luzeko ekimen honetan eta jakin badakigula borondatea dagoenean; Udaletatik, badagoela oraindik ibiltzeko biderik euskararen normalkuntza bultzatu eta hizkuntz eskubideak gure udalerrietan bermatzeko.

***Aiaraldean, 2023ko maiatzaren 3an***